



Tragedia eguneratuak

Shakespeareren obran oinarritutako antzeulan bat estreinatuko du ostiralean Bilboko Arriaga antzokiak: 'Erresuma' • Calixto Bieitok zuzendu du obra, eta Bernardo Atxagak ekarri du euskarara

Olatz Enzunza Mallona Bilbo

«Mirari baten aurrean gaude». Hala esan du Bernardo Atxaga idazleak *Erresuma/ Kingdom/ Reino* antzeulanaren aurkezpenean, lortutakoa sinetsi nahianedo. William Shakespeareren tragedia historikoetan oinarritutako obra bat da, eta haien bertsioproioa ontzen aritu da Calixto Bieito Arriaga antzokiko zuzendari eta antzerki zuzendaria. Berak egin du testuaren moldaketa, eta Bernardo Atxagak itzuli eta egokitu du euskarara. 11 aktoreko lantalde bat bilduko da oholtza gainean, eta ostiralean erakutsiko dute emaitza, lehenengoz, Arriaga antzokian. Datozen egunetan ere emanaldiak eskainiko dituzte, eta Bilbon jardun ostean nazioartera joko dutela aurreratu dute.

«Hau zen Bilbora iritsi nintzeanean buruan nituen proiektuetako bat», kontatu du Bieitok. 2018an hasi zen obrari bueltaka, ingelesez, frantsesez, suedieraz edo alemanez lan egin ondoren Shakespeareren hitzak euskaraz edo gaztelaniaz entzuteko «jakin-min handia» zuelako. Idazle ingelesaren tragedia laburtzen dituen egokitzapen bat egin du zuzendariak. Betiere, «esentziari» eutsiz: «Haren hizkera, bortizkeria eta poesia nabariak dira obran».

Bide horretan, euskal aktoreen talentua ere «erabat presente» izan duela kontatu du: «*Obabakoak* egin nuenean, ikusi nuen Euskal Herrian talentu handiko antzeulek daudela, eta horri Bernardo Atxagarekin izandako konplizitatea gehituz, are gehiago konbentzitu ninduen proiektu hau egiteko». 11 aktorek parte hartuko dute antzeulanean, eta euskal antzerkigintzako izen ezagunak daude zerrandan: Joseba Apaolaza, Lucia Astigarraga, Ylenia Baglietto, Ainhoa Etxebarria, Miren Gaztañaga, Iñaki Maruri, Koldo Olabarri, Lander Otola, Eneko Sagardoi eta Mixel Santamarina. Jose Maria Pou aktore katalanak, berriz, gaztelaniazko taularatzean parte hartuko du. Proiektuaren parte izatea «plazer hutsa» dela azpimarratu dute aktoreek.



Erresuma/ Kingdom/ Reino antzeulaneko lantaldea, atzo, Bilboko Arriaga antzokian egindako aurkezpenean. ARITZ LOIOLA/FOKU

«Kasualitatea ez den zerbaiten parte izatea ez da askotan gertatzen, eta uste dut hemen gauden denok dugun sententzia dela», esanez abiatu da Sagardoi. Asko gozatzeko ari direla nabarmendu du aktoreak, eta ikusleek ere gozatzeko espero du: «Shakespeareraz egutzen ez duenak asko gozatu du, gai ugari lantzen direlako, eta baita Shakespeare egutzen duenak ere: hari solte ugari aurkituko ditu». Baglietto, berriz, antzokietara joateko deia egin du: «Euskal Herriko antzokietan gutxitan ikusi den obra bat da, desberdina, eta ikusleengan iltzatuta geratuko dela uste dut».

Atxagak ekarri du antzeulana euskarara, eta Bedita Larrakoeiteak egindako itzulpena hartu du abiapuntu gisa. Hala ere, moldaketa batzuk egin behar izan dituela aitortu du, hizkuntzak «etengabe» aldatzen ari direlako: «Euskarak sekulako aldaketa izan du, une oro ari da aldatzen, eta horrek asko zaildu du lana». Gustura geratu da emaitzarekin, eta, bide batez, Shakespeareraz egindako lana ere azpimarratu du: «Denok dakigu Shakespeare

egon daitekeen egilerik sakonena izan dela: giza arimaren zirrikitu guztietan sartu zen».

Proposamen indartsua

Estetikoki eta bisualki «oso proposamen indartsua» dela nabarmendu dute lantaldeko kideek. «Familia arteko gerra zibil bat dago antzeulanaren oinarrian», laburbildu du Bieitok. XV. mendeko Ingalaterran dago giroa, eta indarkeria, gorrotoa, ustelkeria, maitasuna, zalantza, sumina eta mendekua izango dira, besteak beste, obran landuko dituzten gaietako batzuk. Era berean, Shakespeareren tragedietako pertsonaiak izango dira protagonista. Tartean, Rikardo II.a, Henrike IV.a, Henrike V.a, Henrike VI.a eta Rikardo III.a.

Oholtzak berak ere poesia garaikideari keinu egingo dio: oso gaur egungoa den planteamendu eszeniko bat aukeratu dute. Zehazki, instalazio bat dirudien agertoki zuri eta argizatu bat aurkeztuko da ikusleek begien aurrean. Hala, antzeulek beraien ere parada izango dute euren pertsonaiak «modu aske eta intuitiboan» eraikitzeko. Horrez gaine-

ra, ikus-entzunezko baliabideak ere erabiliko dituzte, zuzendariak azaldu duenez.

Pandemiaren ondorioz, egun batez atzeratu behar izan dute *Erresuma/ Kingdom/ Reino* antzeulanaren estreinaldia. Berez, ostegunetan ziren obra aurkeztekoak, baina, lantaldeko zenbait kideren positibo kasuen ondorioz, ostiralera atzeratu behar izan dute euskarazko estreinaldia. Aurreantzean beste hiru saio ere egingo dituzte euskaraz: hilaren 12an, 13an eta 24an, 19:00etan. Gaztelaniazko estreinaldia, berriz, datorren asteburuan izango da, otsailaren 17an, eta hurrengo egunetan beste sei emanaldi egingo dituzte.

Bilboren ondotik, badituzte data batzuk zehaztuta. Besteak beste, Iruñean, Madrilan, Santanderren (Espainia), Donostian, Gasteizen eta Getxon (Bizkaia). Aurrera begira, berriz, Europan zehar bira bat egiteko asmoa ere badute. «Ea *Obabakoak* ekin bezala antzeulan honekin ere publikoa zutik jartzeko gai garen», esan du Bieitok, barrez.



Haren [William Shakespeareren] hizkera, bortizkeria eta poesia nabariak dira obran»

Calixto Bieito
Antzerki zuzendaria

«Shakespeare egon daitekeen egilerik sakonena da: giza arimaren zirrikitu guztietan sartu zen»

Bernardo Atxaga
Idazlea

«Euskal Herriko antzokietan gutxitan ikusi den obra bat da, desberdina; iltzatuta geratuko dela uste dut»

Ylenia Baglietto
Aktorea